BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2211

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinen bidez inprimaki hauek onartzen baitira eta horiek jakinarazten: batetik, indarreko itunpeko ikastetxeek 2015-2016 ikasturterako planifikazioaren aldaketa eskatzekoak, eta, bestetik, 2014-2015 ikasturterako itundu beharreko gela-kopurua finkatzekoak. Halaber, eskabideak aurkezteko egutegia onartzen eta jakinarazten da.

Irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bidez, hezkuntza-itunen erregelamendua onartu zen. Bada, haren II. eta VI. kapituluetan ezarrita dago hezkuntza-itunak hitzartu eta berritzeko prozedura.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan ikastetxe pribatuekin hezkuntza-itunak izenpetu eta berritzeko. Agindu horren 11. artikuluaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urtero argitaratuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bat, egutegiak eta eskabide-orriak zehazteko. Ituntzeko unitate-kopurua zehazteko eskabidea aurten hasten den ikasturteari dagokio, eta, planifikazioa aldatzeko eskabidea, aldiz, hurrengo ikasturteari.

Hezkuntza-kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldaketak dakartza Lanbide-heziketari eta Hasierako lanbide-prestakuntzako programei dagokienez.

Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuak hezkuntza-sistemako lanbide-prestakuntzako ikasketen Oinarrizko Lanbide Prestakuntzako berariazko alderdiak arautzen ditu, eta, haren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, Hasierako lanbide prestakuntzako programa baten lehenengo maila gainditu duten ikasleek programa 2014-2015 ikasturtean amaitu ahal izango dute.

2014-2015 ikasturterako ituntzeko gela-kopurua zehaztu behar da, eta, hala behar bada, 2015-2016 ikasturterako planifikazioko aldaketa posibleak egin behar dira.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Onartzea eta jakinaraztea 2015-2016 ikasturterako indarreko itunpeko ikastetxeek planifikazioaren aldaketa eskatzeko betetako inprimakiak, eta 2014-2015 ikasturterako ituntzeko gela-kopurua zehaztea.

2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak aurkezteko egutegia onartu eta jakinaraztea:

15 egunekoa izango da ituntzeko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzen 2014-2015 ikasturtea ituntzeko eta 2015-2016 ikasturteko planifikazioa aldatzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2014ko uztailaren 17an amaituko da eskabideak aurkezteko epea, bai 2014-2015 ikasturtea ituntzeko, bai Batxilergoa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak, Goi Mailako Heziketa Zikloak, Hezkun-

tza Berezia 2 LH eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Prometako irakaskuntzen 2015-2016 ikasturteko planifikazioa aldatzeko.

2.– Eskabideak aurkeztea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu ahal izango dira eskabideak (agindu horrek 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzea eta berritzea, eta 2012-2013 ikasturterako unitateak zehaztea ebatzi zuen).

Eskabideak agindu honetan ezarritako eranskinen arabera bete beharko dira. Aipatu eranskinak euskadi.net-en helbide elektroniko honetan daude eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Halaber, bide telematikoen bidez eskuratu ahal izango diren eskabide-inprimakien bidez bete ahal izango dira eskabideak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Itunen aplikazio informatikoaren bidez: https://www.hezkuntza.net/appcont/control_acceso/index_c.html

Horretarako, ikastetxeak aplikazio horretan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu.

Eskabide telematikoa behar bezala bete eta gero, Egoitza Elektronikoak onartutako sinadura elektronikoko edozein sistema erabiliz identifika badaiteke ikastetxe eskatzailea, eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu ahal izango da.

3.– Eranskin hauek aurkeztu beharko dira:

I.A eranskina: 2015-2016 ikasturterako planifikazioa aldatzeko eskabide-inprimakia.

I.B eranskina: 2014-2015 ikasturtean ituntzeko unitate-kopurua zehazteko eskabide-inprimakia.

II. eranskina: 2015-2016 ikasturterako planifikazioa aldatzeko inprimakiak.

III. eranskina: 2014-2015 ikasturtean ituntzeko unitate-kopurua zehazteko inprimakiak.

4.– Eskabideetako akatsak zuzentzea eta alegazioak.

Eskabidea osatugabe badago edo zuzen daitezkeen akatsak baditu, ikastetxe interesdunari eskatuko zaio, hamar egun balioduneko epean, akatsa zuzen dezala eskabidea aurkezteko hautatu duen bide bera erabiliz, eta ohartaraziko zaio, ezen hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; aurretik, ebazpena eman beharko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikuluan xedatu bezala.

Halaber, behin-behineko proposamena jaso eta gero, ikastetxeak egoki iruditzen zaizkion alegazioak aurkez ditzake, jakinarazten den egunetik hasita hamar egun naturaleko epean.

3. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

2012ko maiatzaren 16ko Aginduan ezarritako Batzordeek eskabideak aztertuta eta proposamenak eginda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduaren bidez ebatziko da deialdia, sei hilabeteko epean, agindu hau indarrean sartzen denetik hasita, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da horren jakinarazpena.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Hasierako lanbide-prestakuntzako programak.

Hezkuntza-kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren arabera, Hasierako lanbide-prestakuntzako programei begira, 2015-2016 ikasturteari ez dagokio planifikaziorik.

Agindu honen bidez zehaztuko da 2014-2015 ikasturterako itundu beharreko gela-kopurua Hasierako lanbide-prestakuntzako programetako bigarren mailetan, zeinen lehenengo mailak 2013-2014 ikasturtean itundu baitziren.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi gabekoetan, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Agindua, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko baldintzak arautzekoa; 293/1987 Dekretua, irailaren 8koa, hezkuntza-itunen erregelamendua onartzekoa, eta 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 21a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I.A ERANSKINA

_____ jaunak/andreak, _____ udalerriko _____ ikastetxe pribatuko titularra/ ordezkaria izanik, 2014ko _____aren ____ko Aginduari jarraikiz, zeinen bidez onetsi eta argitara ematen baitira 2014-2015 ikasturterako ituntzeko gela-kopurua zehazteko eskatzeko inprimakiak eta 2015-2016 ikasturteetako planifikazioaren aldaketa eskatzeko inprimakiak.

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

– 2015-2016 ikasturteetako hezkuntza unitateen planifikazioa, honekin batera doazen II. eranskinen arabera.

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

I.B ERANSKINA

_____jaunak/andreak, _____ udalerriko _____ ikastetxe pribatuko titularra/ ordezkaria izanik, 2014ko _____aren ____ko Aginduari jarraikiz, zeinen bidez onetsi eta argitara ematen baitira 2014-2015 ikasturterako ituntzeko gela-kopurua zehazteko eskatzeko inprimakiak eta 2015-2016 ikasturteetako planifikazioaren aldaketa eskatzeko inprimakiak.

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

– 2014-2015 ikasturterako hezkuntza-itunak, honekin batera doazen III. eranskinen arabera.

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

II. ERANSKINA

PLANIFIKAZIOAREN ALDAKETA

Ikasturtea: 2015-2016.
Irakaskuntzak: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia 2 (itxia).

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

MAILA		GELA-KOPURUA
		2015-2016
HAUR HEZKUNTZA (2. ZIKLOA)	3 urte	
	4 urte	
	5 urte	
	GUZTIRA	

LEHEN HEZKUNTZA	1.	
	2.	
	3.	
	4.	
	5.	
	6.	
	GUZTIRA	

DBH	1.	
	2.	
	3.	
	4.	
	GUZTIRA	

HEZKUNTZA BEREZIA 2 (ITXIA)	

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

II. ERANSKINA

PLANIFIKAZIOAREN ALDAKETA

Ikasturtea: 2015-2016.
Irakaskuntzak: Batxilergoa, Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-Zikloak eta Zereginen Ikaskuntza.

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

Maila	GELA-KOPURUA
	2015-2016
– Batxilergoa	
– Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak (1)	
– Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-Zikloak (2)	
– Zereginen Ikaskuntza	

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

(1) II.A eranskina bete behar da.
(2) II.B eranskina bete behar da.

II.A ERANSKINA

PLANIFIKAZIOAREN ALDAKETA

Ikasturtea: 2015-2016.
Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

HEZIKETA-ZIKLO BERRIAK:

ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		KURTSOA	TXANDA	GELA-KOPURUA
KODEA	ZIKLOAREN IZENA			2015-2016
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		

ORDEZKATZEKO HEZIKETA-ZIKLOAK:

ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		KURTSOA	TXANDA	GELA-KOPURUA
KODEA	ZIKLOAREN IZENA			2015-2016
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

II.B ERANSKINA

PLANIFIKAZIOAREN ALDAKETA

Ikasturtea: 2015-2016.
Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-zikloak

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

HEZIKETA-ZIKLO BERRIAK:

GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		KURTSOA	TXANDA	GELA-KOPURUA
KODEA	ZIKLOAREN IZENA			2015-2016
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		

ORDEZKATZEKO HEZIKETA-ZIKLOAK:

GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		KURTSOA	TXANDA	GELA-KOPURUA
KODEA	ZIKLOAREN IZENA			2015-2016
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		
		1.		

_____, 2014ko _____aren ___a

TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.

Irakaskuntzak: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia 1

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

MAILA		A		B		D	
		Ikasleak	Gelak	Ikasleak	Gelak	Ikasleak	Gelak
HAUR HEZKUNTZA (2ºZIKLOA)	3 urte						
	4 urte						
	5 urte						
	GUZTIRA						
LEHEN HEZKUNTZA	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	5.						
	6.						
	GUZTIRA						
DBH	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	GUZTIRA						
HB	HB1H						
	HB1B						

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Hezkuntza Berezia 2 (itxia)

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

HB 2	Ikasleak	Gelak
Garapeneko nahaste orokorrak		
Buru-urrituak		
Mugimendu-urritasun larriak, urritasun elkartuak dituztela		
Zentzumen-urrituak		

_____, 2014ko _____aren ____a
T
ITULARRA/ORDEZKARIA

II. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Batxilergoa

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

BATXILERGOA	A		D	
	Ikasleak	Gelak	Ikasleak	Gelak
1. kurtso				
2. kurtso				
GUZTIRA				

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

(*) Diruz lagunduko diren gelak zehaztuko dira kurtsorako ikasle kopuru osoa kontuan hartuz eta modalitateak kontuan hartu gabe.

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		TXANDA	KURTSOA	HIZKUNTZA-EREDU	IKASLEAK	GELAK
KODEA	ZIKLOAREN IZENA					

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako Goi-Mailako Heziketa-Zikloak.

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

GOII-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		TXANDA	KURTSOA	HIZKUNTZA-EREDU	IKASLEAK	GELAK
KODEA	ZIKLOAREN IZENA					

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Zereginen Ikaskuntza.

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

MAILA	HIZKUNTZA-EREDUA	IKASLEAK	GELAK
Zereginen ikaskuntza			

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

III. ERANSKINA

ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2014-2015.
Irakaskuntzak: Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.

Kod.: _____ Ikastetxea: _____ Udalerria:_____

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK		MAILA	HIZKUNTZA-EREDUA	IKASLEAK	GELAK
KODEA	LANBIDE PROFILA				
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			
		2.			

_____, 2014ko _____aren ____a

TITULARRA/ORDEZKARIA